

Biolentzia, demokrazia eta Euskal Herria Joxe Azurmendiren ikuspuntuaz baliaturik

Josebaitor Luzarraga Iturrioz

Batxilerra

Sarrera

Hurrengo ikerketa lanak kutsu pertsonala izatea espero dut. Euskal Herrian dagoen pentsalari onenetakoa den Joxe Azurmendiri 2005eko urtarrilean egin nion elkarrizketaren bidez saiatuko naiz Euskal Herria eta biolentziak honekiko duen lotura aztertzen. Horretarako elkarrizketatuak berak idatzitako liburu batean oinarritu naiz, *Demokratak eta biolentoak* (1997) izeneko entsegua hain zuzen. Nire ustez, interes globaleko gaia da, batez ere Euskal Herrian bizi dugun gatazka egoera sustraitik oratzen duen autoreetako bat dugulako Azurmendi. Bere lan honetan euskal biztanleriari kontuan hartzea txarto etorriko ez litzaiokeen apunte esanguratsu batzuk ageri dira. Lan honen lezioa, gainera, oinarritzko lege moralak izanda nola ez dugun argudiatzeko gaitasuna galdu beharrean dago. Obrak beti izango dira obrak, ongia eta gaizkia non dauden betiere jakinda, noski.

I. Elkarrizketa Joxe Azurmendiri

Azurmendiri egin nion elkarrizketan esan zidan berak ez zuela biolentziaren ikuspegi orokorrik, baina hala eta guztiz ere liburuan agertzen diren zenbait aspektu argi utzi zizkidan elkarrizketan galderak gauzatu eta gero.

Liburuaren nondikoa

–Frantziako 200. urtemuga izan zenean, Iraultza horren inguruan hitzaldiak eta ospakizunak egon ziren. Orduan nik pentsatu nuen zuzenean Iraultza Frantsesari buruz hitz egin ordez, (zeren Euskal Herritik ez zaigu interesatzen Parisen zer egin duten), zer da Euskal Herritik begiratuta oraindik interesgarria izan litekeena? Orduan konferentzia batzuk eman nituen, eta liburuaren estiloa konferentziarena da.

"Zuek zer zarete lehenago abertzaleak ala demokratak?" Hori esaterako Ardanzaren frase bat da, zer gertatu da orain, bere frasea zen: gu gara lehenago demokratak abertzaleak baino. Orduan nik esan nuen: aizu, hori ez da hain ebidentea, polemikan ebidentea da, baina bestela ez da hain ebidentea. Abertzaletasuna bera, iraultza egin eta gero etorri den gauza bat da, beraz lehenago iraultza bat dago, eta gero datoz demokrazia eta abertzaletasuna.

Orduan, liburua konferentzia moduan dago; gero *Jakin* aldizkarian publikatu zen, lagun bati gustatu eta liburu bezala atera zen, baina ez dago pentsatuta liburu bat izateko. Gero beste hitzaldi bat Nietzsche/Junger da, hau berau Iruñean eman nuen beste hitzaldi bat da. Hemen eskandalu bat egon zen Junger Doctor Honoris Causa egin zutelako, bat Alemanian egon baldin bada, alemanek pixka bat ezkutatu egiten dute eta hemen Doctor Honoris Causa, eta orduan esan nuen gu non gaude? Alegia Gernika bonbardatu zuenen herriko idazleak badaude ezta? Bertol Brechte, demokratak Naziek pertsegitu izan zituztenak... eta guk juxtu hartzen dugu Naziekin

ibili zena. Bueno ni espantatuta gelditu nintzen. Testuak nahiko zirkunstantzialak dira, ez dute gogoeta finko bat biolentziari buruz adierazten, gainera igual ez daukat, orain ikusiko dugu zure galderekin.

–Hirugarren pertsona erabiltzen duzu Miranderen kasuan, bere azalean zaudela ematen du.

–Bai, hori egia da. Mirandek ez du inoiz sistematiko egin, nik bere testuetan hori irakur dezaket, eta garai haietan asmatu nuen sistema erabiltzen dut neuk nolabait espresatzeko Miranderen kulturen badagoen baina berak garatu ez duen Frantziako Iraultzaren kritika bat, berak, ipuin bezala garatu du, Zuberoako ipuin polit bat dago adibidez, baina sistematikoki ez du garatu nahiz eta pentsaera hori Miranderengan egon badagoen.

–Mirandek eta Nietzsche-k historia beraien inguruko gai ororen ardatz moduan hartzen dute, ez ote daude oker?

–Bat gaztea denean, barkatu orain, izaten du joera bere posturak edo iritzi politikoak arrazoimenaren izenean justifikatzeko, eta bat zaharragoa denean dauka joera historiaren izenean justifikatzeko; nik orain zaharraren izenean hitz egingo dizut arrazoi honegatik: identitateak jokoan daudenean, ez dago memoria beste fundamenturik.

Zer da Josebaitor, hau herentzia bat da baina pentsatzen ez duguna, berriz, zer da Josebaitor. Ba harrigarria da, baina Josebaitor da: bere oroipenak, halakoren semea, halako kalean jaioa, halako eskolatan ibilitakoa, halako lagunak dauzkana... beraz, dena memorian artxibatuta dago, oroipena da. Baina hori erdia bakarrik da ze, Josebaitor da, eta hau da kurioa, baita ere, bera ez dena. Alegia, izan nahi ez duena, izan nahiko lukeena baina ez dena (gogorik ez daukalako... baina izan zintezke), baina zuk izan nahi ez duzunak edo izan nahiko zenukeen baina izango ez zarenak zu egiten zaitu baita, adibidez zu zara, ez du izan nahi kritika bat etsenplu bat bakarrik, zu zara zentroafrikara leprosoak zaintzen joan ez den bat, beste bat joan egin da. Orduan, zu zara bazarena, hori memoria da, eta zu zara ez zarena: nahi ez duzulako, ezin duzulako edo oraindik proiektuan dagoelako. Zuk nahi duzu idazle bat izan eta orain ari zara lan egiten, ikasten, formatzen eta guzti hori, nahi duzu idazle bat izan, edo filosofo bat izan edo ekonomista bat izan. Zu zara beraz, zu, eta zu ez zarena, baina sentidu hirukoitzean: ezin duzulako, nahi ez duzulako eta proiektuan zaudelako. Orain hau aplikatu herri bati, herri baten identitateari, eta berdin gizatasunari, zer da gizakia zer da morala...

Zer da gizakia, ba gizakia zer den galdetu daiteke modu razionalista hutsean eta esentzia bat edo bilatuko genuke; oso arriskutsua da eta ez da jarraitzen bide hori, hain zuzen arriskutsuegia delako esentziak bilatzea. Esentziak ez dira kaptatzen, ez dira atzematen. Orduan, zer da atzematen duguna, atzematen duguna da gizakiak nolabait produzitu duena: artea, gerrak, familia, gizarteak, ekonomia... zer sortu: bere memoria, alegia, Euskal Herrian badago memoria historikoa, memoria historikoa den neurrian, eta gu markatu gaituzten neurrian, eta gu haiekin identifikatzen garen neurrian, baina ez da gauza bat lotu behar gaituena, lotzen bagaitu esklabo bihurtzen gara. Agian Arana Goiriren errorea hor dago, esaten

zuenean: "Por que los vascos en la Edad Media"... Barkatu baina nik ez dut nahi Erdi Arora itzuli. Orduan, guk eduki behar dugu memoria, baina memoriaren kontra joateko ere bai. Honek esan nahi du, zuk eduki behar duzu zure aitaren memoria, baina aitaren kontra joateko ere bai ze joaten ez bazara aitaren kontra inoiz ez zara izango Josebaitor, izango zara Joseba "cópia numero dos". Hau psikologia problema ere bada, eta herri baten historian berdin-berdin. Ez du derrigor konfliktiboa izan behar, ez daukazu derrigor aitarekin haserretu beharrik, baina bai aitarengandik distantziatu, bestela zu ez zara inoiz zu izango. Bi elementu dago eta inportantea da, zu zara eta Euskal Herria da bere memoria eta bere proiektua. Bere memoria ez menpean egoteko, baizik eta nolabait hortik abiatu eta transformatuz joateko proiektuan. Historiaren kontra bat gartzetan oso errez egoten da baina historiaren inportantzia, historia ongi ulertuta... Inportantea da historia. Beste asunto bat da, historia erabiltzea gure proiektu politikoa justifikatzeko, eta ez da egia, historiak ez du ezer justifikatzen; historiak inspiratzen du ez du justifikatzen.

–Mirandek borroka proposatu zuen, orain biolentzia deritzona, azalduko zenizkidake biolentzia pragmatiko eta biolentzia morala?

–Hemen, biolentziaren bi forma dago: bat da, lehenengo hori [biolentzia pragmatikoa], armak hartzen dituguna, eta hau egiten dugu helburu politiko batekin. Baina gero beste problema bat dago, eta da, biolentzia hartzen dugunean gogoeta baten ondoren eta orduan biolentzia hori justifikatzen duen moral bat behar dugu, beraz, moral tradizionala puskatu behar dugu, beste moral tipo bat sortzeko.

Mirande, Nietzsche eta autore guzti hauekin dagoen problema da beren esplikazioen arabera, Europan daukagula historia moral bat Greziatik eta Israeldik datorrena, non lagun hurkoa maitatuko duzun. Klaro, lagun hurkoa maitatuko badut, ezin dut neure hankapean hartu eta niretzat lanean eduki eta esklabo bihurtu, orduan zer egiten dugu, egiten dugu demokrazia: denok anaiak gara, denok berdinak gara... eta guzti hori. Mirande Nietzsche eta hauek, antidemokratikak dira horregatik, ze esaten dute, moral honekin, gizon guztiak berdinak egiten ditugula, eta beraz, egiten duguna da nortasun inportanteak sortu ahal izatea ukatu. Sortzen baldin bada bat naturaz gehiago dena besteak baino, guk esaten diogu, ez-ez hemen denok berdinak gara denok anaiak gara... eta orduan zer egin diogu: bere posibilitateak ukatu. Orduan, egin behar duguna da, lehenengo, nahi badugu euskaldunak libre izan, behar duguna lehenengo ez demokratikak izan. Egin behar dugu beste moral bat sortu, non benetan karakter fuerte bat daukatenak eta ahalmena daukatenak lider batzuk izango diren. Horiek eramanago dute gero atzetik masa, baina beraiek egingo dute orduan askatasunaren borroka orain arteko konplexu moralik gabe. Bi mailatan mugitzen da; gauza bat da, eta beharbada horregatik dago hemen bereizkuntza eginda: gero zer gertatu zen; ETA etorri zenean, edo armak hartu zituenean ETAk, ez zuen jarraitu Nietzsche eta Miranderen morala, baizik jarraitu zuen moral demokratikoa. Jarraitu zuen moral moderno iraultzaile tradizionala eta ez moral moderno antidemokratiko Nietzscheanoa. Eta orduan geratu da, biolentzia bat dago, baina dago linea batekoa eta ez bestekoa; seguru asko hori da hor jokoan dagoena.

–Zuk liburuan esana da sistema bakoitzak biolentziaren legitimazio eta deslegitimazioaren barne araudiak dituela. Uste al duzu proposatu nahi den sistema euskaldunak bere barne araudian legitimotzat ikus dezakeen biolentziaren erabilera ondo ikusten duela espainiar sistemaren biolentziaren barne araudi desberdinarekin talka eginez?

–Sistema bakoitzak dauka bere auto-justifikazio eta deslegitimazio sistema. Oraindik euskal sistema bat ez da proiektu bat besterik, ez dago oraindik, eta alderantziz, sistema espainola badago. Gertatzen dena proiektuak oraindik denak politak izaten direla horrela, ze euskal proiektua da, generikoki ze euskal proiektuen artean diferentziak egongo dira, esate baterako, batzuk ekonomistagoak izango dira, beste batzuk... bueno baina oraindik proiektua den bitartean behintzat, euskal proiektua da askatasun proiektu bat. Klaro, askatasun proiektu batek dauzka alderdi polit guztiak. Badakigu, gero, momentua iritsiko balitz hipotesi batean, sistema bat antolatu behar izatearena. Sistemak batek dauzka baita ere bere problemak, esate baterako, euskal sistemaren barruan egongo lirateke baita ere lapurrak beraz polizia batzuk egotea behar da; egongo dira gaixo batzuk, beraz behar dira psikiatrak, psikiatria oso kontrol gogorra da; behar dira azterketak jarri, ala ez, ez dugu jarriko azterketarik batxileratoa bukatzen denean, denak libre izan daitezten. Segur asko, jarri egingo ditugu. Hori ere ordea, kontrol sistema bat da. Baina klaro gero bestetik esaten duzu, nire umeen eskola gero edozeini emango diot ala emango diot berak estudiatu duela garantizatzen didan eta titulu bat badaukan norbaiti. Beraz, sistema batek, eratu den momentuan, dauzka nolabait kontrol sistemak ipini beharra.

Nik imajinatzen dut, euskal sistema bat hurrengo urteetan eman dezagun antolatu ahal izango balitz, izango litzatekeen sistema demokratiko bat Holanda, Norvegia, Danimarka bezalako herrialdeen antzekoa. Ze bentaja eta ze desbentaja dauzkate hauek. Txikiaren desbentajak dauzkate, baina txikiaren abantailak ere bai eta nik oro batean hartuta ikusten dut bentajak askoz gehiago direla. Zergatik erreforma sozial bat egin nahi baduzu Errusian (80 milioi biztanle), makina hori martxan jartzea oso lentoa da eta ez bakarrik hori baizik bere biktimak, oso gaizki pasatzen dute, Errusian ikusi zen. Baina lurralde txiki batean, Danimarkan edo Holandan, non Erregeak berak bizikletan ibiltzen diren kalean (erosketak egiten joaten dira), toki txikiakoeak, gutxi gora-behera, elkar ezagutzen dugu eta Donostiko edo Bilboko alkateak non afaltzen duen badakigu... klaro, hor, gizarteak kontrolatzen du boterea asko eta ez alderantziz. Alde horretatik askoz mobilagoa da, esperimentu sozialak egitea errezagoa da eta gaizki atera badira erretiratu egiten dira 10.000 hil gabe, en fin, mila aldiz bentajak dauzka. Orduan, euskal sistema batek edukiko litzuke bere alderdi errepresiboak, dudarik gabe, baina horiek mila aldiz errazagoa izango lirateke korrejitzea. Txikien abantaila hain zuzen da, erraz korrejitu ahal izatea gauzak.

Hori eskolan ere bai, eskola haundi bat aparato inmobile bat da, zerbait aldatzea izugarri zaila da. Laugarren kurtsokoek nahi dutena ez dute hirugarrenekoak nahi. Zenbat eta handiago aparatua zailagoa da zerbait kanbiatzea, humanoagoa egitea. Euskal Herriko sistemak, hipotesi batean egongo balitz, edukiko luke bere biolentzia, edukiko luke baita ere bere defentsa sistema norbaitek agreditzen banau, baina minimoa izango litzateke, ze zeini axola zaio Euskal Herria konkistatzea, Amerikari Irak interesatzen zaio baina Euskal Herria bakean utziko

luke. Alde horretatik, biolentziaren problema Euskal Herrian kasik minimo batera erreduzita egongo litzateke.

Espanian ez da horrela, Espainiak daukalako historia bat, daukalako autokontendio bat, inperioarena oraindik ere. Datuak oso gogorrak dira, langile emigrante espainolak dira hizkuntza gutxiena ikasten dutenak, horrek esan nahi du ez direla adaptatzen. Eta inkluso miserian dauden tokietan, Alemanian eta... ez daudela Estatuak babestuta hemen dauden bezala. Esan nahi du badaukatela beraz, beren auto-kontzientzia orokor bat; orain estatuaz ari naiz eta estatuak inposatu duen kulturaz. Klaro, biolentzia espainola, bueno egunero ikusten dugu zoritxarrez nola benetan kasik mugagabeki jokatzeko kapaz den, ez bakarrik torturak eta, beren arteko borroketan ere bai.

Oraintxe, egun hauetan Madrilen PPK eta PSOEek darabiltzaten borrokatxoak, bueno, hori da konflikto bat. Sistemarena, nik batez ere historikoki pentsatuz. Monarkia zegoenean... monarkia ulertu egin behar da, monarkia historikoa zer den. Monarkia da, arrazoiaren kontra egon litekeen gauzarik absurdoena, arrazoi honegatik: ardi baten umea ardi bat da eta lehoi baten umea lehoi bat da, baina okin baten edo harakin baten umea ez da okin bat edo harakin bat, baizik igual da maisua edo musikoa. Baina, errege baten umea errege bat da. Hori da benetan *animal, animal, animal*; biologiara eramandako kontzeptu bat da hori. Hau honela esanda, kasik txiste bat ematen du, baina eske zoritxarrez hori horrelaxe dago. Jaiotzak, legitimatzen du erregetza. Monarkiaren justifikazioa, biologian dago. Hori monarkia klasikoan horrela esaterik ez zegoen eta orduan zer egiten zuen: eske Jainkoak izendatu du familia hau bere ordezeko eta erregea ez da errege herriak aukeratu duelako ez, Jainkoak aukeratu duelako. Eta orduan, izaten dira beti: "Por la gracia de Dios: Rey". Honekin esan nahi dudana da, nik zuri ematen badizut "pa" muturreko bat, gaizki egin dut, baina eske nik errege edo erregearen semeari ematen badiot muturreko bat, sakrilegio bat egin dut. Egin dut Jainkoaren aurkako bekatu bat eta ez zure aurkako bekatu bat. Hor dago diferentzia radikala errege baten ustez. Frantziako demokratek, alegia iraultzaileek erregeari lepoa moztu ziotenean, ez zioten lepoa moztu gizon bati, baizik moztu zioten Jainkoaren ordezeko bati. Frantziako iraultza ikaragarria egiten duena da hori, ze beste jende askori lepoa moztu zioten gillotinan. Baina ikaragarria ez da jende asko hiltzea baizik ikaragarria da erregeari lepoa mozte, historikoki esan nahi dut. Izan zen sakrilegio bat.

Orain zer gertatzen da. Demokraziak sistema monarkikoa hil zuen erregeari lepoa moztuz; orain bera dago agintean, eta orain zer egiten du, demokraziaren aurka altxatzen den edozein "antidemokrata", kriminaltzat hartzen du. Eta nik orduan esaten dut: aizu, esan ezazu ze kasutan izan litekeen zure kontra biolentzia legitimoa, esaten ez baduzu ez dagoela zure kontra biolentzia legitimorik, zeu bihurtzen zara biolentziaren monopolio, automatiko, eta hori dago bihurtuta. Sistema bakoitzak dauka bere sistema bere biolentzia legitimatzeko, eta bere kontrako biolentzia automatiko deslegitimatzeko. Hor tranpa ebidente dago, demokrata baten aurka jarri liteke bat monarkiko eta esan: ez-ez, nik errege bat nahi dut berriro, bueno badaukagu. Espanian biak dauzkagu, hori inbento originala da.

–Liburuan hauteman dudan puntu bat honakoa da: Morala guztion sinesmen unibertsala eta benetan unibertsala izan daitekeela. Uste al duzu sistemak morala geroz eta gehiago kutsatzen ari direla?

–Nik uste dut moral unibertsal bat ez dagoela, moral unibertsalik ez dago. Baina orain alderantziz, bigarren puntua: dago moral bat, bere burua unibertsal deklaritzen duena, baina hain zuzen, hori da bere problematikotasuna. Mendebaldeko historian daukagu, kasik linea bat, honela funtzionatzen duena: gizakia da berdin arrazoimena; arrazoimena berdin logika; logika berdin gizaki guztiengan, beraz, arrazoimena berdin logika, berdin, berdina gizaki guztiengan, berdin moral razional berdina gizaki guztiengan.

–Ilustrazioa, ez?

–Ilustrazioaren problema da hori, baina eske hori ez da horrela, arrazoi simple bategatik: moral bat ez da logikaren gainean eta ez da arrazoimenaren gainean eraikitzen, baizik morala identifikatzen da norbere nortasunarekin. Nire morala eta ni, gauza bera da. Bueno, baina ni, nire arrazoimena baino gehiago naiz, ni naiz, nire oroimenak, nire sentipenak, nire emozioak, nire ahultasunak eta debildadeak, ni hori dena naiz. Orduan, nire morala ere hori dena da.

Ebidentemente, gizaki guztiok ez gara berdinak: lehenengo, gizonak eta emakumeak ez gara berdinak, beraz, badago diferentzia bat. Gero, kultura batzuetan iritzi diferenteak dauzkagu, adinetan ere bai: zure adinean, adiskidetasuna da gauzarik sakratuena, hori gero gutxitzen joaten da; zure adinean justiziarentzat izaten da sentsibilitatea, esan dezagun alderantziz, injustiziarentzat sentsibilitate ikaragarri bat izaten da (eta ez galdu). Gizartearen presioarekin azkenean etsi egiten da, resignatu egiten da, beraz gizarteak berak, kendu egiten dizkigu, gure ahalmen moralak neurri handi batean, urteekin. Hori zeuk obserbatuko duzu zu baino zaharragoetan. Bakoitzak du bere morala, ze morala fundamentatzen duena azkenean da erabaki pertsonal bat. Nire nortasuna da nire morala. Nik ez dut esaten indibiduala denik neurri horretan absolutuki, ze gure indibidualitatea beti ematen da komunitate batzuen barruan. Ematen da beraz, familian bilbotar komunitatean, kristau komunitatean, euskal komunitatean, europar komunitatean... beraz, ematen da beti inguru batean. Posibilitateak geure nortasuna gauzatzeko, laborategi batean ez dira ematen, baizik ematen dira harreman kontaktuetan. Orduan, zure morala zurea da, baina zure morala eraikita dago zure aitarekin, zure amarekin, borrokan, zure anaiarekin, zure lagunekin...beraz, harremanetan dago. Baina klaro, zuk kasualmente harremanak dauzkazu batzuekin eta ez dauzkazu Indiako batzuekin. Orduan morala indibiduala da, pertsonala da sentiduan, ez indibiduala, baina isolatua ez da inola ere, baizik beti ematen da komunitate batean. Hain zuzen komunitateak ez direlako inoiz unibertsalak, inoiz ez daukagu kontakturik edo harremanik unibertsoarekin, zuzenean behintzat.

–Estatua da arrazoia diozu liburuan eta "giza eskubideak" Estatuaren inbentuak direla, moral absoluturik ez dagoela. Mendebaldeko Estatu sistemek ba al dute gu eszeptiko hedonistak bihurtzeko nahirik? Horretan dihardute?

–Horixe da orain esaten ari nintzena. Estatuak deklaratu dute beraien burua benetan Jainkoaren lekuko ze, etsenplu bezala, oraintxe daukagu eztabaida: autodeterminazioa. Eskubide bat da ala ez da. Euskaldunok esaten dugu, eskubide bat da, eskatu egiten dugulako; espainolek esaten dute, ez da eskubide bat, eman nahi ez dutelako; eta oso ondo ikusten da hor. Estatuaren ikuspegitik, noiz hasten da eskubide bat, eskubide bat izaten. Estatuak berak deklaritzen duen momentuan, hau eskubide bat da. Estatuak esaten duenean, hau eskubide bat da, eskubide hori sartzen da zuzenbidean: "derecho". Baina, eskubide bat eskatzen den momentuan, eskubide hori morala bada. Hemen dago borroka orduan, eskubide juridiko eta eskubide morala. Guk eskubide moral bat errebindikatzeko dugu eta besteek: "ez daukazu eskubide juridikorik". Baina hori, eskubide bati aplikatu iezaiozu orduan. Eskubide batek ez dauka eskubiderik, estatuak deklaratu arte eskubideak badaukala eskubidea libre izateko. Baina eske momentu horretan ja ez da eskubidea. Estatuak eskubideak deklaratu ditu eskubide, berak onartzen dituen momentuan eskubide direla. Eta bitartean zer egiten du: ba eskubideari edo euskaldunari esan, ez-ez, hori zuen exigentzia subjektiboa da, gainera denek ez dute nahi, gehiengoak nahi du, bueno gehiengoak nahi du baina hori gurekin ados jarri eta gero. Orduan, borroka hori luzatzen, luzatzen eta luzatzen baldin bazoaz, ba nekatu egiten zara eta jendeak esaten du: "bueno, aquí lo primero es vivir y que nos dejen en paz..." estatuak zer gehiago nahi du horixe baino. Dago estatuaren ahalegina bizitza nolabait berdintzeko, lasaitzeko, errebindikazioak isilarazteko... eta lortu egiten du hori da okerrena, Euskal Herrian gutxiago baina pentsa Ipar Amerikan.

–Borroka armatuaren fedea/sentimendua Estatuak izan daiteke modu honetara erlatibo bihurturiko morala moral gorakorrena bihurtzeko?

–Ez da horrela planteatzen. Nik uste dut, Euskal Herriko kasuan; ez da berdina eman dezagun, Trotsky eta Errusiako kasua nahiko diferentea da ze han gertatu zen iraultza bat sortu zela teoria filosofiko bat kopiatuz. Esan nahi dut, teoria filosofikoa Alemanian egin zen, eta Errusian, Alemanian estudiatu zuen jendeak iraultza egin zuen. Iraultza hori hasi egin da zati handi bat eginda zeukalako. Euskal Herriko kasua ez da hori, Euskal Herriko kasua geure historiarengatik da, Gerra zibil ondoko zampaketa... eta hasten da erreakzio bat, sortzen da borroka armatua eta praktikamente borroka armatuak ideologiak bilatzen ditu eta eduki ditu fase diferenteak: marxistagoak, trotskistagoak... Nik uste dut Euskal Herrian gertatzen da, borroka armatuaren helburu bat badago: Euskal Herri libre bat lortzeko helburua dauka eta hor, proiektu horretan bukatzen da. Ez du pentsatzen zer moduko Euskal Herria izango dugu orduan, hori ez da planteatzen; ze orduan planteatu egin beharko litzateke: eta ze moral. Pixka bat pentsatzen da, bueno izan gaitzen libre eta orduan ikusiko dugu nola antolatu Euskal Herria, euskaldunek beraien erabakiko dute nola antolatu Euskal Herria. Beraz, borroka berak, salbe fase batzuetan izan ezik: marxista, trotskista, ze orduan bazekiten "la dictadura del proletariado" eta beraz "democracia centralista"... baina hori oso momentu konkretuetan egon den gauza bat da, bestela nik dakidala moral konkretu baten proposiziorik ez da egon. Mirandek bai, Mirandek eta Nietzchek bai badaukate, baina eske ez da hortik joan pentsamendua.

–Estatuak biolentziaren monopolioa du. Estatu barnean, bihur daiteke nazio bat estatu bere diferentzia biolento-kulturalengatik?

–Hor dago problema, estatuak dauka monopolioa eta orain zer egiten da horren aurka. Orain Ibarretxek nahi duena: demokratikoki behartu egingo dugu biolentziaren kontra onar dezatela gure proiektua; eta biolentziarik gabe. Orain daukagu bi alternatiba Euskal Herrian: biolentzia behar dugu askatasunerako; edo daukagu: ez dugu biolentzia behar baina lortu egingo dugu askatasuna. Bigarren tesi honek, ez dugu biolentzia behar baina lortu egingo dugu askatasuna, dauka modu bat bakarra besteari irabazteko: bestea baino efikazagoa izatea behar du. Horretarako oso kontsekuentea izan behar du.

Iraultza justifikatzen duena da, nolabait esateko, desesperazioa. Desesperazioa ez kabreoaren sentiduan baizik: ez dago itxaropenik bide demokratiko horietan eta beraz hartzen da desesperantza gabeko bide bat, armazkoa. Itxaropena daukanak, bide demokratikoetatik aurrera ateratekeena egin behar duena da desitxaropendu horri, itxaropena sortu. Bestela ezin da aurrera joan. Orduan orain, eta nik lehenengo aldiz abertzaletasun klasikoari, PNVri edo, lehenengo aldiz ikusi diot Franco hil zenetik garbi bere alternatiba bat itxaropen alternatiba bat bezala aurrera ateratzeko asmoa. Ibarretxeri hori aitortu behar zaio, egon liteke bat kontra edo alde berdin zait, baina hemen badago orain proiektu bat esaten duena: gure itxaropena hau da eta eutsi egingo diogu. Nik uste dut ondorioa berehalaxe eduki duela, segituan kuestionatu da: bide hori erreal baldin bada biolentziaren beharrik ez dago. Baina klaro, galdera handia orain hori da. Beraz, berriro, estatuaren biolentziaren aurka biolentziaren legitimazioa da, hain zuzen, desesperantza. Eta alderantziz, itxaropena badagoen neurrian biolentzia deslegitimatuta gelditzen da. Baina itxaropena ekintzekin erakutsi behar da. Biolentzia beti medio bat bakarrik da, ez da helburu bat. Planteamendu Nietzscheano-Mirandetar batean, galdera hau izan zitekeen horrela, berak esaten zuelako: "zuek daukazue moral mendebaldar kristau demokrata greko erromatar hori eta nik nahi dut beste moral bat, beste gizarte bat, beraz beste biziera bat". Baina hori planteamendu Mirandetar- Nietzscheano batean izango litzateke posible bakarrik. Zergatik? Hor, autoritarismoa helburu bat delako, ez da medio bat bakarrik. Gure kulturaren, biolentzia beti bitarteko bat da, ez da inoiz helburu bat, eta ez da nortasun bat definitzen duena. Hau da, bat biolento bezala, beste gabe biolento denean guk hartzen dugu asozialtzat.

–Biolentzia zein faktorerengatik izan daiteke legitimoa?

–Ze biolentzia. Biolentziak beti justifikatzen du, nire ustez, espresio orokor bat erabili nahi baldin bada, biolentzia bakar-bakarrik da erabilgarria ezinbestekoa denean; horrela esango nuke. Orduan, estatuak erabili ahal du biolentzia ezinbestekoa bada, ba defenditzeko lapurretatik ondasunak, edo emakumeak beren asasinotatik defenditzeko... beraz, ezinbestekoa denean biolentzia legitimoa da. Eta honek balio du estatuaren kontra ere. Orain, bigarren hau, estatuak ez du inoiz onartuko, baina nik esaten dut baietz. Ze gizakiak, printzipioz, estatuaren kontra joateko era legitimo posible bat izan behar du beti, ze bestela deklaratu dugu estatuaren esklabo edozein kasutarako. Beraz, ez dut esaten noiz, baina printzipioz biolentziak legitimoa izan

behar du estatuaren kontra ere. Pertsona delako lehenengo eta ez estatua. Gutxienez teorian, estaturen kontrako biolentziak legitimoa izan behar du.

–Pertsonak naturaz elementu biolentoak izaki, nork mugatuko dizkigu bortizkerien erabilpenak?

–Moralak, gure zentzuan. Moralaren fundamentua erabaki bat dela nik esaten dut bai, erabaki bat da hau: nik zu lehenengo pertsonatzat hartuko zaitut ala morroitzat hartuko zaitut. Nik pertsona bezala ondorio batzuk atera behar ditut: errespetuarena... esklabotzat hartzen bazaitut ahal dudan guztia egingo dut zu esplotatzeko eta txerrikeriak egiteko. Bigarren, nik zu pertsonatzat bakarrik ez, hartu zaitzaket nire herritar edo herrikidetzat eta orduan proiektu bat egiteko asmoa izan genezake biok: zergatik ez dugu honela eta honela antolatzen gure komunitatea... beraz ari gara ja moral bat egiten. Nik ordea pentsatzen bazaitut zu zarela pertsona bat bai baina nire lehiakidea, konpetentzia daukazu, nik daukat denda bat eta zuk beste bat eta niri kalte egiten didazu... beste moral bat egingo dugu. Moralaren fundamentazioa dago, gure harremanak, gizakiak biolentzia bat beti dauka edo esan dezagun hobeto, agresibitate formak beti dauzka, baina hori nolabait bideratu, antolatu egin behar dugu elkarrentzat mesedegarri izan dadin moduan, horregatik artaldeko arkumeak bihurtu gabe, baina bai, en fin, bideratu harreman bizitza ahalik eta egokien eginez eta horretarako ez da nahikoa kodigo penal bat bakarrik: "ez duzu lapurtuko"... ze horrekin ez da elkarbizitza aseguratzen, horrekin gehienez ere egiten dena da nolabait ebitatu, baina elkarbizitzak adiskidetasun, berotasun, familiartasun, sinpatia... en fin elementu positiboak dauzka. Kodigoak egin dezake elementu negatiboak eutsi, frenatu nolabait, baina elkarbizitzak behar dituen alderdi positibo guztiak, hori moralak eta erlijioak ematen dute. Eta hezkuntzak. Erlijioak, erlijioa dagoen tokian, ze erlijioa ez dago eduki beharrik, esan nahi dut, erlijioak badauzka erlijioaren ordezkioak, esan nahi dut, erlijioa izan gabe, erlijioaren ordezko diren pentsaerak. Oso kuriozosa da, nola geroz eta gehiago aurkitzen da erlijiorik ez daukan herriak edo jendeak: Suedia...edo gazteak baita ere Alemanian... baina daukatenak kasik mentalitate erlijiosoak: pobreei laguntzekoa eta guzti hori asko daukate, oso mentalitate sozial bat daukate. Hori tradizionalki erlijioarekin elikatu edo motibatu da eta gaur ja ikusten dugu erlijio gabe ere hori motibatzen dela. Beraz, nik esan dut moralak eta erlijioak, baina gero eta gehiago erlijio gabe ere bai.

–Kontraesan politiko nagusia bizitza publikoan abertzaletasunarena izatetik, orain demokratismoarena izatera. (Abertzaletasuna bera lau alderditan laukituta dagoela, gainera, eta lau sektak heriosuarki elkarri kontrajarrita). Zein da zatipen hauen oinarria: Ohitura familiarra, ekonomia, onura indibiduala?

–Nik ez nuke indibidualizatuko. Nik uste dut, abertzaletasunaren historian, historiak erabakitzen duela batez ere. Gauza bat ez da ahaztu behar, historikoki abertzaletasunaren kontzientzia Arana Goirirekin sortzen da. Bueno, Arana Goiriri kritika asko egin liteke, nik daukat liburu bat bera kritikatzat eta guzti hori baina Arana Goiri periodista bat zen ez da ahaztu behar. Beraz, orain etortzea historia irakasle bat Arana Goiri kritikatzera, nire ustez, da etorriko balitz bezala filologo bat esatera: "pero Zapatero pues dice mal las frases en castellano" –"pero es que no tiene porque ser un filologo, e? Le tenemos de político, de literato no le tenemos". Arana

Goirik igual historian esan ditu gauza batzuk oso ondo ez zeudenak edo bere formulazio batzuk egon daitezke ondo edo gaizki edo oso terminologia razista batean garai hartan nahiko arrunta zena, konforme. Beraz, esan nahi dudana, ez zait batere inporta berak esan dituen gauzak baizik gauza bat egin du: Euskal Herria zegoen zizko eta berak nazio kontzeptu bat sortu du eta nazio kontzeptu horren inguruan mugimendu bat sortu du, hori da. Bueno, baina klaro, Euskal Herrian, jende askok pentsamendu horren inguruan eta erreferentzia sistema horrekin gero Gerra Zibil bat egin du, eta galdu egin du. Eta beraz, gero pasa ditu 40 urte galtzaile bezala, asko sufrituz, pertsegitua, kontzientzia txarrekin, lotsatuta ze burla egiten zioten... insegurantzia batean eta guzti hori. Familia handiena, kuantitatiboki handiena. Bueno, eta gero dator horren kontra sortu den talde bat baina praktikamente tradizio eta erreferentzia berdina dauzkana, eta hori da EA. EAJ eta EA, familia bera dira. Historikoki esan nahi dut. Edukiko dituzte diferentziak proiektuan, baina memorian, lehen esaten nizuna, memoria bat daukate eta proiektu diferentea. Proiektu diferentea baino, erlatiboki diferentea, baita ere, ez oso diferentea. Bueno eta gero datoz, Euskadiko Ezkerra eta gero, hor segurua asko lau familia aipatzen badituz, izango dira HB edo izan zena. Euskadiko Ezkerra PSOera joan zen beraz, ja ez dago.

–ANV.

–ANV, hori gerra aurrekoa da. ANV da Euskal Herrian egon den mugimendurik interesanteenetako bat.

–Oraindik badauka sedetxo bat Algortan

–Bai, eta begira izugarri interesantea da. Dagoen gauzarik sinpatikoena izan da. Ze, hori da, Aranaren tradizioan eta Aranaren kontra. Lehenengoa egon dena, bera izan da. Aranaren kontra guk kritikatzeko ditugun gauzak ja orduan kritikatzeko zituelako. Soziala zen, liberala zen, laizista zen, orduan kasi inamajinable ziren gauzak; ikaragarri progresista, beraz, garai hartako Euskal Herrirako inamajinable zen gauza bat. Gertatu dena da, ANVk ez zuen eduki denborarik desarroiloa edukitzeko, segituan gerra etorri zitzaiolako. Eta orduan, gelditu zen, ba hori, proiektu bezala. Trunkatuta, gelditu zen, proiektu moztu bat bezala. Eta badago memoria historiko bat ere ANVrena, baina klaro, emigrazioan gelditu zen eta kanpoan txikia gelditu zen. Eta orduan, besteek irentsi egin dute praktikamente eta gaur ANVren memoria dago, ANVko batailoiak gerran ibili ziren, beraz, PNVrekin gelditu dira, eta gero besteak gelditu dira HBren inguruan. Orduan, dauka memoria puskatu bat, gerrak puskatu duelako, gauza askotan bezala. PNVn ere hori gertatu zen baina gutxiago: Monzon PNVkoa zen baino HBn bukatzen du.

–Gallastegi ere bai, ez?

–Gallastegi, eske Gallastegi da hor buru interesantea. Pixka bat harrigarria da momentu horretan, ze gertatzen da Aranaren inguruko mugimenduan Meabe eta hauek konturatzen dira, Aranaren kritikari bihurtzen dira. Meabe PSOera pasatzen da. Gallastegi ez, Gallastegi gelditzen da abertzale bezala, kritikari, oso sozial eta ez da pasatzen beste alderdi batera, ez, abertzaletasunean gelditzen da kritikari izanez. Eta klaro, hori, nik uste dut, Gallastegik bakarrik egin duela, eta berak lortzen du bere inguru interesantea idazlea zelako, eta ez dauka denborarik gerrak harrapatzen

duelako. Gallastegik zeuzkan, besteek ez zeuzkaten iturri batzuk intelektualki ere, ze Irlanda ezagutzen zuen eta zeuzkan adiskide irlandarrak...orduan, bazeuzkan erreferentzia batzuk, ba beste batzuk ez zeuzkatenak. Eta Arana Goirik ere ez zeuzkanak, eta orduan posible zen beste pentsamendu bat desarroilatzea.

–Bi kasu daude: Bata- Argumentuek biolentzia elikatzen dute. Bigarrena- Biolentziak argumentuak elikatzen ditu. ETAREN biolentzia eta liburuan ageri diren Nietzsche eta batik bat Spengler-en biolentziaren arteko ezberdintasuna izan daiteke honako hau?

–Nik askotan esaten dut: Mutil bat zergatik egiten zen –orain ez dakit, momentu batean, ETA sortzen denean– mutil bat zergatik egiten da biolento? Ez argumentuengatik, egiten da desesperantzagatik. Zerk desesperazten du euskal mutil bat: ba, ikusteak gobernuak nola praktikamente burla egiten digun, nik uste dut gauzarik inportanteenetako bat kausa bezala orain hasita psikologikoki, kausa bezala hasita, dago harrokeria eta desprezioa, min gehiena ematen diona herri zapaldu bati da desprezioa eta burla. Eta gehiago gaztetan, ze zaharragoa zarenean esaten duzu: atea itxi eta joan "vete a tomar...". Baina bat gaztea denean eta sensible denean injustiziar, oraindik ez dagoenean nolabait estropeatuta, karrilatu egiten da. Beraz, hau da kausa bat. Eta gero dago beste kausa bat nik uste dut berdin inportantea dena eta da ikustea nolabait instantzia moralak izan behar dutenak: intelektualak, filosofoak, apaizak, obispoak... ikustea: "baina boterearen zerbitzuan daude", hauek ez daude zapalduari laguntzeko edo, ez-ez daude esateko zapalduari, bueno zuk pazientzia aguantatu eta... eta errebelatzen bada "hori gaizki dago" esateko. Aizu, hau gaizki egongo da baina bestea ez dago hobeto, ez duzu esaten. Beraz, dago hau: boterearen aldetik harrokeria eta errespetu falta, eta gero instantzia moralak izan beharko luketenak, batez ere intelektualak eta moralak, erlijiosoak ikustea daudela boterearen alde. Ze klaro, orduan gelditzen zara, errebelatuta dagoena gelditzen da; orain arte zeukan moralarekin ezin da errebelatu, beraz beste moral baten bila hasten da. Eta horregatik joaten da edo marxismora edo Miranderengana ze bilatzen du beste moral bat. Orduan gertatzen da, biolentziaren argumentuak: moral barri baten bila. Eta orain, eman dezagun egin garela ANVkoak edo egin garela trotskystak, eta orain argumentuak badauzkagu biolentzia bat ere praktikatzeko. Orduan, nik uste dut hasieran, biolentzia ez da inoiz sortzen argumentuetatik baizik sortzen da biolentzia baten esperientziatik. Eta desesperazioa moral batetik. Orduan desarroilatzen dira argumentuak biolentzia justifikatzen dutenak eta orain ja bueltaka hasten gara.

–Aurkitzen garen postmodernismoa deskribatzen duen masen aginteak sor ditzake bere barnean jarrera biolento bereizgarriak? Hau da, biolentziak ereiten ari gara jendartean sistema demokratiko honekin?

–Nik uste Espainiako kasuan bai. Espainiako demokrazia den bezala delako, etorri den tokitik etorri delako etc. Ez da ahaztu behar zenbat jende biktima izan dena aurkitu den "todos demócratas". Eta atzora arte torturaztailea izan zena, goizetik gauera demokrata da. Eta atzora arte frankista izan zena, Fraga Iribarne, betiko etsenplua jartzeko, atzora arte faxista izan zena, ez mentalitatez, ezer ez du kanbiatu, orain demokrata da bera. Eta atzo zapalduta zegoena "pues es igual"

demokrata bat da "y nada más". Gelditzen da atzo bera zanpatu zuenarekin berdinduta. Eta batek esaten du: "Ba esplikazioren bat edo eman beharko dit, ez da?" –"Ez-ez, ez da beharrezkorik denok gara berdinak orain", baina klaro errealista izanda gauza bat ez da ahaztu behar. Zer gertatzen da, egunkari handien jabeak lehengo familia berak dira, juezen familiak lehengo berak dira, militarrek lehengo familia berak dira, politikoak lehengo familia bera dira. Klaro, orduan kanbiatu dena zer da? Paperak. Baina klaro gizartean tokiak hartuta zeuden tokian gelditu dira: jendea, eta orduan zapalduta zegoenak esaten du: ba nik zapalduta jarraitzen dut. Eta klaro horrekin gelditu gara; biolentzia ereiten ari gara desilusio hau dagoelako. Elizak lehengo bera izaten jarraitzen du, juezak lehengo berak izaten jarraitzen dute eta gainera oportunistak batzuk direla demostratzen. Klaro, orduan biolentzia ereiten ari gara. Nik uste dut benetan, "por apologia del terrorismo" mehatxatzen dituzte batzutan (eta holako gauzak). Nik uste dut benetan biolentziaren apologistak direla beti burla egiten dabilzan horiek. Ze, nik ez dut uste inor egin denik...ez oso zaila da zergatik norbaitek biolentziaren erabakia hartzen duen. Baina kasik seguru nago, motiborik inportanteenak horiek direla, burla eta mesprezua eta hauek direla. Eta beti sentazioa sortzen dizute...eske benetan burlak dira. Orain Madrilen eraman dituztelako PPko bi diputatu horiek, gaur irakurri dut egunkarian, orain esan dute: "porque en España nadie había sido detenido desde 1975 a la 1 de la madrugada". Eta esaten dut: ba nik badauzkat lagunak, e?.

–Eta askotan gezurrak esaten dituztela ez?

–Orduan esaten duzu horrek nire lagun hauek inexistentezat ematen ditu, hori ondo dago ze horiek ez dira pertsonak nonbait. Horiek ez daukate eskubiderik eta beraz horiek ez ditugu kontatu ere egiten ezta. Orduan, gazte batek eta bere lagunaren anaia, ama edo aita ikusi duena nola eramaten duten...Nire lagun baten etxean sartu ziren, hirurogei urte eta gehiagoko Juan Mari Torrealdei. Gauean, atea puskatu eta garrasika...eta goizeko ordu-batak pasata ziren. Beraz, "que nunca se ha hecho eso?". Ni joan nintzen hurrengo egunean bere andreaki laguntzera ze zegoen ikaratuta etxean. Eta oraindik zegoen atea puskatuta, oraindik hurrengo goizean.

–Eta gainera ez dira sartzen, atea jo eta barrura sartzeko eskatuz.

–Ez-ez, puskatuta. Bi ate puskatuta, ze dauka etxea eta mendi ondoan bizi da. Ate bat kanpoaldean eta barrualdean, orduan puskatu zuten kanpokoa eta barrukoa, eta sartu ziren barrura, gaez.

–Goi burgesia baten onura ekonomiko baten menpeko demokrazia honen bitartez, noiz uste duzu gaituzteko duela zuk liburuan aipaturiko demokraziaren barne dagoen fedea, arrazoa?

–Ez dakit, ni ez naiz profeta eta noiz egingo duen nik ez dakit. Bueno, baina nik daukat, beharbada zaharragoa naizelako orain, daukat geroz eta gehiago, berriro historiaren errebindikaziora nator. Gu herri txiki bat gara, bueno ez, hasiko naiz urrutia: historian daude historia egiteko forma diferenteak. Forma bat izan liteke: kolpe bat eman puskatu eta berriro zerotik hasten gara, hori da gerrak eta ekartzen dituzten medioak, horrek edukitzen du ondorio bezala bat puskatuta betiko eta beste

bat hasten da baina hasten da baita ere "casi de cero". Dago beste historia bat egiteko modu bat, eta gehiago da txikiena, ze adaptatuz joan behar dute, ez daukate zero momentu hori inoiz, ze bere inguruan handiak dauzkate beti. Eta orduan, bere historia da pixka bat adaptazio eta borroka, adaptazio eta borroka, adaptazio eta borroka historia bat. Eta honek edukitzen du kalendario oso iluna ze galdetzen duzu: Eta noiz galdu genituen foruak? Eta esaten duzu: ba hiru karlistadatan, behin ere ez ditugu osoki galdu baizik galdu ditugu...orduan, noiz irabaziko ditugu foruak? Ba seguru asko berdin. Behin puska bat, gero beste puska bat, gero beste puska bat...Orduan nire irudipena da herri txikien historia egiten dela uhinak bezala itsasoan: bat etortzen da...baina etortzen da beste bat ere.

–Espainiaren batasun nazionala lortu nahi dutenek uste al duzu zuk liburuan aipu bezala sistemaz baliatuz demokrazia konstituzionalaren fedea janarazi diela biztanlegoaren zati handi bati?

–Janarazi bai egin dutela. Bueno, ez dute lortu, ez dute lortu baina bai hori da...Oso kuriooa da nola azkeneko urteetan zelan aldatu den diskurtsoa: "Por España y la unidad sagrada de España...", ze ni umea nintzanean, eta oraindik zure aita ere, guk entzun dugun bokabularioa falangista zen eta guzti hori. Klaro, orain oso kuriooa da, diskurtso bera da eta hartzen duzu baina lau hitz kanbiatu dira praktikamente. Eta orduan ez da esaten ja España baizik "La unidad constitucional" eta ez da esaten "España es indivisible" baizik esaten da orain "La estructura territorial". Gauza batzuk aldatu dira baina oso kuriooa da, diskurtsoa taula batean jartzen duzu eta berbera da, bakarrik lau hitz kanbiatu dira. Baina egia da lortu dutela beraz diskurtsoaren kanbio txiki honek eman die demokraten itxura bat, eta lehen esaten nuena: orduan guk begiratu behar duguna da, ez da hainbeste diskurtsoaren kanbioa baizik jendea egon non dago, eta lehengo jendea dago lehengo tokietan. Lehengo periodikoak dira. Lehen *Diario Vasco* eta *El Correo*, lehen *El Correo Español* zen, "español" kendu zuen eta "ya está". Orduan, horiek gauzak sintomatikoak dira nahi baduzu, baina hori da egin duen dena. Aurpegia garbitu, eta beraz, orain atakatu zitekeen guzti hori kendu, baina lehengo tokian. Inportantea da zein dago zein tokitan. Honekin esan nahi nuena zen, nola sartu digute "que las cosas han cambiado, simplemente porque a cambiado el discurso". Nik beti Errusiako etsenplua jartzen dut, arrazoi honegatik hemen denak daude konbentzitura "que en Rusia eso de la democracia anda muy mal" nola aterako dira "dictadura de 50 años" eta gero egun batean demokrazia, hori ez da inbentatzen. A ez? Eta hemen bai? Demokrazia bat azkenan da sistema bat baina da kultura bat ere bai, eta beraz joan egiten da ikasten, praktikatzen eta transformatzen baita ere gizarte guztia transformatu ahala. Eta beraz, juez bihurtzen direnean beren arbasoak sekula juez izan ez direnak, ze orain zer gertatzen da: juez bati galdetzen diozu bere aita izan da juez edo...baina baita ere sistemako gizon bat da. Orduan, sistema erreproduzitu egin da, hori horrela den bitartean ez da ezer aldatu. Orduan, ez da ezer kanbiatu bitartean,edo oso gutxi kanbiatu da.

–"Konfliktoa ulertu nahi denean, ez da hitz joko bat gehiago egiteagatik, polarizazioak sortzen duen dena, luzarora, intelektualki fronte bien paralizazioa bakarrik delako" Azalduko zenidake mesedez pasarte honen esanahia?

–Bai, askotan gertatzen da, gu bion artean dago diferentzia bat puntu bati buruz eta orduan hasten gara eztabaidatzen eta eztabaidatzen eta momentu batean paralizatu egiten dugu gure posturak ze ni identifikatzen naiz puntu honekin eta ahaztu egiten dut nik beste puntu asko neukala baita ere. Orduan, hori askotan gertatzen da, abertzaleen beren arteko borroketan; esaten duzu, baina HB PNVtik sortu da orduan gauza bat “en común” eduki behar dute... Baina azkenean etortzen da momentu bat non badirudi kontra eta kito eta ezin dugula ezta bestearengan ezer positiborik ikusi ere eta itsutasun bat sortzen dela. Hori da polarizazioaren arriskua.

Intelektualki, nik bereizten dut arrazoi batengatik: zu eta ni momentu honetan intelektual batzuk gara, esan nahi dut, guk egiten dugu gogoeta Euskal Herriko arazoei buruz baina ez daukagu erresponzabilitate konkretu bat. Orduan, bereizi behar da oso ondo hau: eman dezagun zuk daukazula fabrika txiki bat edo zu zarela herri bateko alkate, eta daukazu erresponzabilitate bat, erabakiak hartu behar dira, eta erabakiak egunero-egunero. Guk ez, guk analizatu egiten dugu, oso libre gara beraz, hanka sartzan badugu ez da ezer pasatzen, baina hark hanka sartzan badu beharbada lana galtzen du. Beraz, berak dauka... praktikak dauzka, lege batzuk, obligatzen dutenak askoz ere flexibleagoak, zaluagoak izatera obligatzen dutenak, eta orduan beharbada abertzale erradikal bat zara baina zuk torniloak falangista bati saldu behar dizkiozu; gelditzen zara beti atrapatuta. Intelektual bezala ez, intelektual bezala eskuak garbi daukazu, oso garbi pentsatzen duzu eta guzti hori. Orduan, intelektualaren aldetik deshonesto izan liteke jolas egitea “puru, jator bakarra ni naiz eta ni...” ez-ez barkatu, zuk daukazu iturri pilo bat hori izateko besteak ez dauzkana. Beraz, hori ez ahaztu, ze ahazten duzun momentuan injustu bihurtzen zara. Ez ditugu inoiz maila berdinean ipini behar ekintza eta erreflexioa. Bakoitzak dauzka bere posibilitateak, bere mugak eta batez ere bere problemak dauzka, baina batez ere ekintzak dauzka problemak.

Problemak dauzka alde horretatik kontzesio askoz gehiago eskatzen duelako gogoetak baino. Gogoetak ez du kontzesio asko eskatzen, ekintzak bai. Intelektual batek, ondorioak berak ateratzen ditu ondo edo gaizki, eta hor bukatzen da bere erresponzabilitatea, baina ekintzak jendea lan gabe edo norbait kartzelan edo norbait ospitalean utzi dezakete. Klaro, hor bi aldiz pentsatu behar dira ondorioak, oso diferente da. Horregatixe aurkitzen da praktikan oportunistak asko baita ere, ze klaro zu hasten zara kontzesioak egiten eta bukatzen duzu kontzesioak aprobetxatzen. Eta hori asko ikusten da, “txaketeroa”, praktikan asko ikusten dena da, eta hasten da beharra dagoelako eta bukatzen du aprobetxatuz, negozio bihurtuz. Bueno, hori nik ezagutu nuen modu honetan ze Francoren denboran problema zen askotan ba herri batean alkate bat baldin bazen falangista bat, alkate falangista bat baino hobea da abertzale pixka bat disimulatu bat eta guzti hori. Eta orduan, ba jende batek “jarri egingo dugu alkate”. Baina zer gertatzen zen ba nola presio soziala eta Estatuaren presioa, falangista batek bezalaxe funtzionatzen zuen. Orduan, zuri berdin zaizu hori abertzalea baden, gero funtzionatu falangista batek bezala egiten badu. Baina hori asko eman da, eta orduan dago jende bat esaten duena “baina gu Francoren kontra geunden” ai barkatu, baina Francoren alde egin zenuten.

Nire ustez intelektual batek sistematik kanpo egon behar du baina sistemaren parte bat izan behar du, berak erabaki behar du, zeinen laguna den; laguna, ez irakaslea. Honekin esan nahi dut, nire ustez Espainiako defektu bat da,

periodikoetan pulpitu batzuk ipini dituzte, eta han hautatu dituzte filosofo edo teologo edo idazle literato batzuk eta ari dira predikatzen mundu guztiari: "hau ondo..." bueno, hori ez da intelektualaren rola, hori da periodiko batek aprobetxatzen du intelektual bat periodikoaren helburuak aurrera ateratzeko. Hori da hain zuzen nire ustez egin behar ez dena. Egin behar duena intelektual batek, nire ustez da: herri honetan badaude borroka batzuk, badaude problema batzuk, eta borroka hori aurrera eramateko badaude jende batzuk eta badaude beste batzuk ere, PPkoak daude PSOEkoak daude eta guzti hori. Bueno, intelektualak aukeratu egin behar du zeintzuk izango diren bere lagunak. Nik aukeratzen dut abertzaleen alderdia dela nik lagundu nahi dudana: ahulena bera da, nire ustez helburu justiziazkoenak berak dauzka, askatasunaren helburuak dauzka. Hauek azkenean ordenarena daukate: "Ya hay un orden defendámoslo". Niri ez zait ordena ikaragarri interesatzen, askatasuna mila aldiz interesanteagoa eta emankorragoa eta hori. Beraz, hauek izango dira nire lagunak. Orain bigarren kapitulua, nik laguna izan behar dut eta ez pretentsioa eduki horien maisua izatekoa. Ze intelektual bat ez dago maisua izateko baizik, hauek ekintzako jendea dira, hauek egin ezin duten gogoeta berak egiteko dago. Ze hauek egunero ekintzan daude eta ez daukate ez denborarik ez iturririk, ze gogoeta bat egiteko irakurri egin behar da, denbora eduki behar da, elkarrizketarako ere denbora eduki behar da... Hauek ez daukate horretarako denborarik. Orduan, intelektual baten lekua niretzat da sistematik kanpo, bai, baina lagun batzuekin, eta lagun bezala gogoeta egiteko. Erabaki batzuen gainean egiten da erreflexio bat. Eta alde horretatik sistemarekin dago, ez dago sistematik kanpo; sistematik kanpo dago baina ez dago zeruan edo ilargian, dago borrokaren barruan. Interesatua dago eta konprometitua dago.

II. Biolentziari buruzko gogoeta bat

Elkarrizketan agertzen diren zenbait kontzeptu beste autore batzuen ikuspuntuen bitartez lotzen ditut atal honetan.

Sarrera

Orain dela gutxi zendu zen Martin Ugaldek eleberririk idazteaz gain, kazetaritzaren inguruko zenbait artikulua ere idatzi zituen. Biolentziari dagokionez *Idazlan politikoak* deritzon liburuan (2003) aurkitu ditzakegu zenbait artikulua. Liburu honen prestatzaile Joan Mari Torrealda da, euskaldun kazetaria.

Euskal Herriak pairatzen duen egoera biolentzia ez du ukatzen Ugaldek *El País* egunkarian 1984-09-25ean idatzirik "Violencia en Euskadi" izeneko artikuluan. Berak dionez:

A pesar de la rémora de muchos problemas, externos e internos, sin resolver; a cada avance nacionalista ha sucedido una afirmación sangrienta de la lucha armada que sostiene ETA, con la secreta esperanza de desacreditar los mínimos de la Administración vasca, y el Estado, como si quisiera mantenerlos activos, responde frenando y a veces paralizando las transferencias por un lado, y actuando, por otro, con una violencia indiscriminada y a menudo fuera de la ley moral y la escrita, que no hace sino alentar la rebeldía de nuevos jóvenes.

Artikulu honen zentzu benetakoa ulertzeko, ordea, garaian kokatzea beharrezkoa litzateke. 1984an Espainiako estatuko boterean PSOE zegoen, Gernikako estatuturen transferentziak goian aipatzen den modura euskal gobernuari emateko ziren. Horrelako konplimenturik ez da gertatu oraindik 21 urtera. Artikulu honetan biolentziaren inguruan jarduten den legez, honakoa dio Ugaldek: "Están primero las vidas humanas sin precio y en cualquiera de las direcciones en que se está expresando este pueblo; está en juego la tolerancia mínima en lo político y lo cultural, que aquí caminan a menudo juntos;" eta hemen agirian uzten duen erara, garaian biolentzia izugarria bizi zen Euskal Herrian, Estatu espainolak euskal herritarren gain aplikatzen zuena barne zegoelarik.

Badu, Ugaldek *El Mundo del País Vasco* egunkarian 1991-06-21an biolentziari buruz idatziriko beste artikulu bat. Garai haietan, PNV alderdiak Espainiako zenbait alderdirekin paktatu zuen beste euskal abertzaletasunak alde batera utziz. Politikaren inguruko begi-bista arin bat egingo bagenu, erraz ikusiko genuke:

Sabinen arnasa eskusiban dutela aldarrikatzen dutenek alderdi espainolekin bat egin dute, gainontzeko alderdi abertzaleen aurka, anaia anaiaren kontra; hauteskunde hauetan erabili duten alkimia zoroaren ondoren, boto garbien poderioz irabazi duten partidu euskaldun batzuk galdu egin dute, aukeratuak izan diren gizonak ez dira karguetarako izendatuak izan;

Pasarteak artikulu honetan erabiltzen duen modura, aurrerago seinalaturiko artikuluak 1983an kokatua baldin bazegoen eta hau ordea, 1991an kokatua baldin badago, bi artikuluen arteko desberdintasunak nabariak direla. Bigarren honetan, egun bizi dugun egoeratik hurbilen dagoen honetan, "Hemendik aurrera botoen ordez, zer? Egin duten beste hau ere biolentzia baita!!", biolentziaren inguruko hausnarketa desberdin bat atzeman daiteke. Azurmendik, elkarrizketan esaten zuenez, baliteke trataera hau Ugalderen "desesperazio"tik etorri izana; aurreko egoeraren (1983) "ilusioarekin" kontrajarriz. Haserre-mendu edo tristezia honen erakusle "Sartu digute, Madrileko PSOEren prepotentzia eta ustelkeria eta PPre mutur beltzarekin (ezker eskuineko nazionalista espainolakin) berauek bizi duten izurri lotsagabea Aitaren Etxeko sukalde eta komunik ezkurturaino" bezalako pasarteak hau izan daiteke.

Estatuak biolentzia du erabiltzen

El poder utiliza el miedo del pueblo para impedir o limitar la libertad. Cuando la ingeniería del consenso fracasa ante la insumisión radical de algunas personas y colectivos, el Estado recurre al miedo como factor disuasorio. No hay poder que no fomente el miedo en el pueblo y no hay libertad que no procure miedo a los poderosos. Cuanto más fuerte es la libertad que se ejercita y se reclama, más intenso es el recurso al poder por parte del Estado. Sobre todo, cuando la libertad que se exige es, nada menos, la libertad política de un pueblo para conquistar el derecho de autodeterminación.

Testu zati honekin hasten du Joaquín Navarrok (2001) bere *Fulgor de libertad, el estado contra Euskal Herria* liburuko "La cruzada antinacionalista" kapitulua. Elkarrizketan agertzen den estatuaren biolentziaren ideiarekin bat eginez, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeak dakartzan aurretiaz planteaturiko arazoak berriz ere esposatzen dira. Madrileko entzutegi probintzialeko magistratu

dugu Joaquin Navarro eta kapitulu honetan hurrengo sartzen duen "Concurren entonces dos terrores: el desplegado por el Estado para someter al nacionalismo más reivindicativo y el ejercido contra el Estado por la violencia armada que, a su vez, alimenta el terrorismo de Estado" pasarteak konfirmatzen du estatua beti dela biolento, Azurmendik esan bezala. Hala eta guztiz ere, biolentzia armatuak estatuaren biolentzia elikatzen duela, bi modutara har daiteke: Lehenengoa, biolentziak aitzakia moduan har dezakeela bere aurka erabilitako biolentzia, jarrera biolentoak intentsifikatzeko edota bigarrena, jarrera biolentoak erabiltzera heldu dela bere aurka erabilitako biolentziaren erruz. Gu lehenengoarekin geldituko gara, estatua beti biolento denaren tesira heldu baikara elkarrizketaren bitartez. "Los dirigentes políticos estatales saben perfectamente que, sin miedo, la libertad política del pueblo vasco es inevitable. Con miedo, imposible". Euskal egoera erretratatzeko du beraz, esaldi honetan, Navarrok. Biolentziak beldur situazio batera eramaten gaituela aitortzen du autoreak, hau da biolentzia aplikatzeak beldurra sorrarazten diela pairatzen dutenei.

Elkarrizketatik atera bezala, estatua beti da biolento, ados, hortaz estatuak beti badu biolentzia aplikatzen beti izango diogu beldur, eta beraz, askatasunak zaizkigu murriztuko; testu pasartetxo horren azalpena izan daiteke honako hau. Joaquin Navarro Euskadi kanpoko izaki, lurralde hau bera bizi izan den lekuan nola erretratatu izan den ikusi ahal izan du, bere hitzetan "Cada vez que se hablaba del País Vasco, era para incidir en marcos de violencia y enfrentamiento, en atentados atroces, amenazas y fealdades. Un cuadro sombrío que nada tenía que ver con la convivencia habitual en las ciudades y pueblos vascos". Beraz, bere ustez, ez zen era egokian Euskal Herriaren erreflexua ematen Estatu espainolean.

Orain dela lau urte inguru PP-k egindako kanpainari buruz ari denean, kanpaina honek izan zituen faktore abrasiboez aritzen da Joaquín Navarro eta modu honetara PPk euskal abertzaletasunaren inguruan bere ustez eman zuen ikuspegia aitortzen digu: "El nacionalismo vasco en su conjunto era cómplice de ETA, campamento de retaguardia de los violentos, encubridor y auspiciador de la actividad terrorista". Beraz, PP-k aditzera eman zuen euskal abertzaletasunaren ikuspegiak ez luke ezertan Azurmendik esandakoarekin antzik izango, azken honek euskal abertzaletasunaren zatiketa, biolentzia hartzen dutenak eta "desesperazioaren" bidean daudenak eta biolentzia hartzen ez dutenak eta "itxaropenaren" bidean daudenen artean eginda dagoelarik.

Agian, egun, guztiok bizi gara estatu handi baten barne: AEB. Bere independentzia lortu zuenetik, hor dirau gelditzen zaion munduan bere bizitzeko era ezarri nahian. Horretaz guztiz ziur dago Noam Chomsky (1998) idazle iparramerikarra. Bere liburu den *Hablemos de Terrorismo*-n dioen legez:

A Estados Unidos no le importa si un país tiene democracia formal u otro régimen. Le importa que se supedita a su sistema de dominación mundial. El principio fundamental es: ¿permitirá un país ser robado?, ¿permitirá que las corporaciones extranjeras inviertan y exploten a su voluntad? Si lo permite, puede tener cualquier sistema político que le plazca: puede ser fascista, democrático, comunista, lo que quiera, mientras dicho criterio se cumpla. Pero si un país comienza a dirigir sus recursos a su propia población, entonces debe ser destruido.

Beraz estatuak berriz ere biolentzia erabiliko luke bere sistema iraunarazteko. Hau da, AEBek munduaren hegemonia osoa lortu nahi dute beraien ekintzek erakutsi duten bezala, hau lortzeko, edozein erresistentzia suntsitu beharra daukate, eta suntsipen hau aurrera eramateko, biolentzia erabiliko da. Horrela, Chomskyk dio "Ciertamente Estados Unidos tratará de destruirlos", munduko estatu den honek biolentoki jokatu duela edo jokatzen ari dela jakitera emanez.

Borroka armatua

Elkarrizketan aipatu den bezala, Euskal Abertzaletasuna bultzatzen duten alternatiba politikoen artean bi bide daude: bata biolentziarena eta bestea biolentziarik gabekoa. Elkarrizketan bertan esaten da bide biolentoak jarraitzen dituztenak bide demokratiko pazifiko batera eraman nahi izanez gero, bide pazifikoak jarraitzen dituzten horiek bide biolentoak jarraitzen dituztenengan esperantza sortu beharko luketela. Paulo Iztueta Armendarizek (2000) bere *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian* liburuan goian aipaturiko ideiarekin bat egingo lukeena helarazten du, honako hau alegia: "Euskal independentismoaren aldeko politikagintzan klase politiko nazionalista protagonismoa hartuz doan heinean bakarrik joan da desagertuz borroka armatuaren izateko arrazoia". Are gehiago, Iztuetak "Europa Batuaren eraikuntza horretan, gatazkaren ataka irekita aurkitzen da, batetik, xedetzat superestatua eraikitzea duen Estatu-nazioaren eta, bestetik, botere-estatuak erregio hutsak izatera kondenaturik dauzkaten Estaturik gabeko nazio etnikoen artean" moduan planteatzen duen arazoa, "abertzaleen familiak politika amankomun koherente, garden eta ekintzaile baten inguruan elkartu beste erremediorik ez du" moduan konpontzera deitzen du, "Lizarr-Garaziko" proiektuari "zimenduak jarri eta bizkarrak elkartuz gora altxatzeko" deritzonari jendeak bere babesa emateko.

Nire iritzia sartzea ez nuen uste, baina horrela izan beharko da. Beharko da esaten dut, ondo deritzodalako. Biolentziaren eta konkretuki borroka armatuaren gaineko edozein gai berehala arbuatzen edo hobeki esanda besterik gabe "paso" egiten da. Azurmendik dioten bezala, iraultza frantsesa biolentziaren bitartez gauzatu zen; garaian zegoen estatu metodologia minoria batek eraldatu nahi izan zuen eta herriaz baliatuz demokrazia inplantatzea lortu zuen. Bart gauean, film argentinar bat ikusi nuen. Film horretako protagonistetako bat, letretako irakasle idealista agure bat, iraultza honen aldekoa zen. Eta egia esan, inoiz ez da jarri iraultza honen legitimazioa serioki kolokan. Beraz, protagonista honen paper psikologikoa edo perfil psikologikoa munduaz arduratzen den pertsona batena litzateke. Baina, zer pentsatuko luke, edo zein izango litzateke pertsonai honen erantzuna, jakingo balu iraultza horretan zenbat pertsona hil ziren?. Ez nuke ikerketa lan hau bide periodistiko filosofikoetatik eraman nahi; baina gogoeta eten bat besterik izatea, besterik ez dut nahi.

Oligarkia

Trantsizio garaia oso izan zen garrantzitsu Estatu espainiarrarentzat eta bere barne hartzen dituen guztientzat ere. Frankismoko diktaduratik demokrazia batera jauzi egiteak dakartzan zenbait buruhauste sortu ziren. Horien artean, momentu

horietan "eraberritzen" zegoen Estatuari beronen menpe dauden biztanleek aplikaturiko biolentzian zentratuko gara.

Joaquin Navarrok bere liburuan, 1976ko azaroko zenbakia (67.a) osatzen zuen *Zutik* aldizkarian agertzen zen pasarte bat adierazten du:

"Durante los últimos meses ETA se ha mantenido en el más absoluto de los mutismos, casi tanto en el terreno propagandístico como en el de la propia acción armada". Pero la causa no era otra que esperar a que el pueblo vasco se apercibiese de que el verdadero carácter de la transición no era democrático, ya ganar tiempo para la "organización estable del socialismo abertzale". ETA censuraba a la "oposición del ámbito estatal" que estaba comprometiendo su legitimidad democrática al retroceder "en la firmeza de sus premisas antifranquistas y consentir que la tratasen como la oposición tácticamente consentida".

Harrigarria, bat jabetzen denean, biolentzia, trantsizio garaian biztanleriaren gehiengo batek erabilia izan zela modu batera edo bestera, euren ideiak helarazi eta "legitimatzeko", hau da, "erreminta" moduan erabili zen biolentzia, tresna "lasaitzaile" modura erabilia izan zen, izan ere, trantsizio garaian gertatu ohi den bezala, noraeza egonen da. Noraez honek, jendearengan seguritate eza sorrarazten du, eta seguritate falta hau erabilia izan daiteke estatuaren aldetik biolentzia gradu altuago batzuetan aplikatzeko. *Zutiken* zenbaki horretantxe ETAk jakinarazten duenez "La democracia no podía surgir como herencia del franquismo, sino como resultado de su aniquilación", jakitera emanez agirian zegoela, frankismoak agintean utzitakoek, leku berean (boterean) jarraitzen zutela. Navarrok gaineratzen duenez:

ETA recordaba que el terrorismo "se caracterizaba por métodos de violencia indiscriminados" y ETA jamás los había utilizado. Había atentado exclusivamente contra los que utilizaban la violencia en la represión fascista del pueblo vasco y contra sus colaboradores. Aquella justificación de su actividad armada apuntaba claramente a que, para ETA, sólo es terrorista la acción violenta indiscriminada, elemento muy importante de análisis para distinguir entre modalidades de violencia armada contra el Estado y desde el Estado.

Beraz, nahas-mahasa sortu zen Estatu espainiarrean. Hainbat izan ziren alderdi desberdinen artean egindako "azpijokoak". Adibidez, PCren legalizazio atzeratua Navarroren ustez. Baina biolentziari dagokionez, elementu "natural" bilakatu zen gizartean. Batetik trantsizio gobernu zegoen, mentalitate frankista zuena. Hauek, agian estatuan zehar "seguritate" edo "kontrola" bezalakoak ezartzeko biolentziaren erabilpen masiboa egin zuten. Sabino Ormazabalek (2003) bere *Un mapa (inacabado) del sufrimiento* liburuan adierazten duenez,

Los distintos medios y publicaciones recogen desigualmente este dato cada año, pero un cálculo aproximado cifra en 3093 las personas heridas de consideración por la intervención de las distintas policías contra actos de protesta y manifestaciones, entre 1968 y 1994. En este apartado no se contabilizan actuaciones policiales fuera de servicio.

De 1968 a 1981 son 2161 personas heridas de consideración por la Policía, incluidas 98 con heridas de bala. En los años 1978 y 1979 al menos 3 personas pierden la visión de un ojo por pelotazo.

Ageria da beraz, trantsizio urteetan biztanleriak pairaturiko "Estatuaren biolentzia".

Bestetik, herriaren biolentzia zegoen, edo herriak bere ideiak aldarrikatzeko erabilitako biolentzia. Lehenago aipatu bezala, noraez egoera batean, non jendeak zer gertatuko den ez dakien, egoera biolentoak sortzea errazagoa da, alde batetik eta bestetik. Beraz, moralak bere indarra hartzen du joko honetan. Aldiz, Joaquin Navarrok dioenari men eginez, Madrileko gobernu edo boterean zeudenen arteko giroa oso zen bestelakoa:

Estaban haciendo el "espíritu de la transición", encarnado en el alumbramiento de un régimen oligárquico. La dictadura estaba siendo sustituida por un Estado de Partidos en el que la oligarquía de cada uno de ellos hacía y deshacía a espaldas de la militancia, y por supuesto, del pueblo.

Orduan egoera horrela planteatu daiteke: estatu bat dago, non frankismo garaitik edo diktadura garai batetik demokrazia garai batera salto egin nahi den, horretarako, herriak bere aldarrikapenak "kalera" eramaten ditu, baina aldiz, gobernu "demokratiko" berri hori osatzen dutenak edo osatzen dihardutenak, frankismo garaiko berberak dira, eta beraz, ez dute aldaketa handirik nahi lehengo botere planteamenduekiko. Honek aditzera ematen du boterean zeuden horiek, biolentzia erabiliko zutela beraien sistema ezartzeko, Azurmendik elkarrizketan adierazi bezala, boterean jarraitzen dute berdinek, eta beraz gaur egun ere biolento diren horiek. Beraz, sistema berdintsua mantendu nahi edo mantendu zuten horien kontra, esan dezagun, estatuaren kontra erabilitako biolentzia terroristatzat hartu zela eta dela. Garai batean anarkistek erabilitako errebolta popular ugariak egun ere terroristatzat hartuak dira, hauek ere estatuaren kontra egin zirelarik.

Navarrok bere liburuan trantsizio egoeraren erreflexu izan zitekeen inguru oligarkaren erakusle bat aipatzen du, Trevijano politiko kartzelaratuak kartzelan bertan izandako istoriotxo, non Chaparro epaileak berarekin izandako elkarrizketa batean, Trevijanok berak honi esan zizkionak azpimarkatuz: "Lo único evidente es que, al preconizar un régimen republicano, no voy contra la forma del gobierno, si no contra la forma del Estado. Usted es un ignorante". Errepublikaren aldeko eskutitz bat idaztearren kartzelaratua izanik, argi uzten du Trevijanok garaiko gobernuan zegoen "mugikortasun eza".

Aislatu bezala geratu zen Euskal Herria Navarroren ustez "Era muy difícil, si no imposible, encontrar en la oposición democrática del momento algún dirigente destacado o representativo sensible ante la situación vasca, donde la represión y la barbarie de las FOP y los "incontrolados" eran mucho más duras que en los demás pueblos del Estado". Beraz, aipatzen den modura, Estatuak erabilitako biolentziak bere kotarik nabarmenenak Euskal Herrian bizi izan zituen. Biolentzia erabiltzen zuen eta duen ETA taldea, 1977an gobernuarekin akordio batetara heldu zen, zeinetan talde armatuaren hiru hilabetetako su-etenaren bitartez, euskal alderdi guztien legalizazioa emango zen, preso zenbaitzuei amnistia osoa emanaz. ETAk deklarazio hau sinatu zuen, ondokoa erantsiz: "Con esta declaración –que debe ser reservada y secreta, entre ETA y el gobierno de Madrid- pretendemos únicamente lograr la liberación nacional y social de Euskadi por la vía democrática, respetando el sentir general de nuestro pueblo". Hau da, Azurmendik elkarrizketan esan bezala, ETAk, ideologia demokratikoa bereganatuz, bere postura modernoa aditzera ematen zuen ondoko eskutitzen antzekoen bitartez. Politikoki esan daitekeenez, ETAk, PNV eta beste zenbait alderdik mahai uniforme abertzale bat sortzearen kontra egin zuen, azken erabaki honek, Madrilen poztasuna ekarri zuelarik.

Autodeterminazio eskubidea

Azurmendik dioen tankera bertsuan ondokoa dio Iztuetak autodeterminazioaz: "Printzipio-mailan onartua izatetik aplikatua izatera tarte handia egon ohi da kasu jakinetan...". Estatuaren gainean aritzean, Iztuetak pasartetxo kurioso bat txertatzen du, honakoa esanez:

Putin, gerra zikinaz baliatzen bada errusiar patriota sukartuen botoak irabazteko, funtsean, hauteskondeetan nagusitu denaz gero, demokrata bat da eta mundu politikoaren aurrean politiko garbia; Milosevic, aldiz, nola hau ez zen NBEkoen aginduetara jarri eta nola ez duen hauteskondeetarako deirik egiten, ez da demokrata eta, beraz, gerra-kriminala izategatik zigortu beharrekoa.

Azurmendik, bere liburuan demokraziarekiko duen ideiarekin bat egin genezake esaldi hau.

Iztuetak, autodeterminazioaren inguruan dabilenean, Lizarra-Garaziko ituna aipatzen du. Bere ustez "euskal-etxea" sortzeko, "Euskal Herriaren eskubide-subjektutasuna, lurraldetasuna eta euskararen berreskurapena, dauden lekuan, zutabe hauek gabe ezin da euskal etxea eraiki eta". Azken puntu bat azpimarratzeko, Iztuetak berak honela deritzo autodeterminazioari eta bere eskubidetasunari: "hau eskubide demokratiko bat den aldetik, herri orori zor zaiona baita eta sistema demokratiko batek printzipioz ezin uka dezakeena".

Autodeterminazioaren inguruan dabilen Martin Ugaldek *Euskaldunon Egunkarian* 1997-03-09an idatzitako artikuluan, Ugaldek berak dio, autodeterminazioak "dakarren mezuak Estatuari bere Inperioa ukitzen badio, ezinbestean gertatzen den bezala, bi muturrak lehia bizioan daude. Eskerrak gaur nazioarteko kontzientzia asko indartu dela" sor dezakeela. Beraz, Estatuak edo bere burua "jainkotu" duen botereak momenturen batean bere estruktura kolokan ikusiko balu bere barne dagoen lurralde edo herri batek independentzia osoa lortu nahi duelako edo kolektibo batek horretarako eskubidea duela aldarrikatzen duelako, orduan esandako estatuak bere baliabide juridikoak erabiliko lituzke, eta hauek amaitzerakoan, biolentzia.

Eskubide demokratikoak eta Konstituzioa

Estatuaz mintzo izan gara, baina puntu garrantzitsu bat airean geratu da. Estatu liberal burgesek sorturiko antolamendu totalitarioa dela. Iztuetak dio: "Estatuak, aldi berean, obligazioen eta eskubideen subjektu bihurtzen da", eta honela dio:

Estatuaren gainetik gizakia dago eta bera da gizartearen kausa eta oinarri bakar. Horregatik, boterearen iturburutzat, ez Jainkoa, baizik eta gizakiek beren artean adostutako Pakto Soziala ezarriko da, zeinetan askatasun indibidualak sakratuak izango baitira. Estatu liberalak eskubideak eta harreman politikoak maila erabat indibidualen ulertzen ditu.

Baina, guk elkarrizketan irakurri edo entzuna dugu Azurmendik Estatuaren "jainkotze" prozesuari buruz dioena, honek eskubide indibidualak gauza gutxi batera

murrizten dituela esanez. Iztuetak berak ere, onartzen ditu Estatuaren planteamenduaren akatsak eta honen planteamendu demokratikoak. Izan ere, beraren kritika orokor batean sartu ahal izango genuke, sistema burges honek jabego pribatuari emandako garrantzia eta beraz "guztiok gara berdinak" lemarekiko kontraesana.

"Estatuak Konstituzioan du bere euskarri juridikoa" dio Iztuetak, beraz, autodeterminazioa bezalako ideia Estatu beraren Konstituzioan agertuko ez balitz, ez litzateke eskubide izango, Azurmendik aipatu bezala. Beraz, edozein herritar edo herritar multzok uste izango balu eskubide bat izan baduela, baina Konstituzioak edo hobeki esanda herritar bakar edo multzo hori bizi den Estatuaren "euskarri juridikoa" den Konstituzioak eskubide moduan aitortzen ez baldin badu, orduan, ez litzateke eskubide izango Estatuaren izenean.

Euskal Estatu

Proiektu bat aipatzen du Azurmendik elkarrizketan. Euskal Estatuaren proiektua. Garaiotan, non Europako Konstituzioa botoa jasotzekoa den, estatu eta nazio kontzeptuak mahai gainean jartzen dira indarrez, berriz ere. Euskal Estatu baten sorrera gertatuko balitz, proiektutik abiatuz, Iztuetaren ustetan "Ekonomi globalizazioaren une honetan, bada, Euskal Herriak ez du Espainiako merkatuaren beharrik", beraz, Euskal Estatuak onura ekonomiko aktualak baino hobekak izango lituzke estatu bilakatuko balitz. Azken ideia hau ondokoarekin errematatzen du :

Juan Mari Ollora arabarra izan da bakearen xedearekin bide berri baten diseinua marraztu duena argitalpen laburño bezain mamitsu baten bidez, beste arrazoiaren artean, ekonomiarena ere aipatuz. Hemen, 1986-1995 hamarkadako BPG edo Barne-Produktu Gordinean emandako hazkunde-tasaren goranzko norabidean oinarrituz, egiaztatzen du euskal ekonomia, EAEkoa zein Nafarroakoa, mundualizazioaren une honetan, Europako Batasuneko Merkatu Bakarrean ekonomia espainola baino erritmo azkarragoan hazi dela eta mundu-merkatuan zein Europakoan gero eta leku gehiago egiten ari dela eta, ondorioz, Espainiako merkatu-morrontzatik urrunduz doala". Beraz, momentu batez pentsatuz Estatu baten sorreraren ardatza ekonomian legokeela, zein liteke arazoa? Ba, Iztuetak berak dioen moduan: "Arazoa da, oraindik ere, ekonomia espainolean ere interes handiak dituen euskal ekonomiako sektore garrantzitsu batek, -ez bakarrik oligarkikoak, nazionalistak ere bai-, Espainiako Estatuan segituz hobeto zainduak ikusi bide dituela bere dibidendoak eta autonomismotik harago urratsak emateko ez bide direla prest agertzen euskal autonomista horiek".

Espainiak, beraz, Euskal Herriak ematen dizkion onurak ez ditu eten nahi izango eta horrela "Espainiarentzat beti emankorra da Euskal Herria, hala izan da, eta ez dauka inongo interesik nekez lortua" dio Iztuetak. Baina Euskal Estatu bat sortzeak eramangarria izan behar du "Bideragarria da euskal Estatu" Iztuetak dioen modura. Beraz, Estatu bat sortu nahi baldin bada proiektu batetik abiatuz oztopoak gainditu behar dira: "Euskal Herriari oztoporik handienak Frantziako eta Espainiako Estatu-nazioetatik datozkio" dio Iztuetak, berauek, ekonomi arlotik orain begiratuz, beraien barne dagoen nazioaz laxatu nahiko ez dutelarik.

Lehen esan bezala, Konstituzio baten erreferendum baten atarian gaude. Alderdi batzuk baiezko botoa eta beste batzuk ezezko botoa eskatzen dute, demokrazian gertatu ohi den era bertsuan. Baiezko eta ezezkoa eskatzen dutenek, ordea, "superestatuaren Konstituzio" baten atarian gaudela iritzi dute edo lukete beharko. Ugaldek dio, 1984-12-14an *Deia* egunkarian idatziriko artikulua batean (bere garairako harrigarriak ziren tesiak ateraz, bestalde):

Estamos a las puertas de una Europa supraestatal y también del siglo XXI, circunstancias en las que mantener el proyecto de poder político nacional de un pueblo pequeño, como es el nuestro, diluido de la misma manera en que nos tuvieron los dominadores dispersos y separados durante siglos, va a construir una dificultad seria.

Argumentu horiez baliatzen zen, garai hauetan, non Estatutuaren erreforma ere herriaren hitzaren zain zegoen, Euskal Estatuaren proiektu eta sorreraz mintzatzeko. Beraz, Konstituzio honen atarian, Iztuetak uste du Europan dagoen giro problematikoak (nazio askapenen "arazoa") talka egiten duela Europa "superestatal"rekin:

Europako arazo nagusienetako bat, nola ekialdean hala Mendebaldean, nazio-arazoari buruzkoa dela eta horri aterabide politiko egokia ematen ez zaion bitartean, ez dela bake egoerarik ezagutuko etorkizunean. Estatu-nazio horiek, zutik iraun dezaten, gero eta maizago, gero eta basatiago jo beharko baitute bortxa erabiltzera eta gerra zikina egitera.

Europaren komenientziaz beraz, Espainiako estatuak agian biolentzia erosotasun handiagoz erabili ahal izango du, bere sistemaren aurka errebelatzen den ororen kontra.

Intelektualak

Elkarrizketaren azken galderan, luze eta mardul jarduten da Azurmendi intelektualak eta beren rol sozialaren gainean. Ekintzarako prestatuak ez daudela baizik eta gogoetarako; gogoetatsu baina ez irakasle, hori dio Azurmendik. Hala eta guztiz ere intelektualak "borrokan" daudela deritzo Azurmendik baina ez Ugaldek. Azken honek "hodeietan" hitza darabil 1984-11an idatziriko artikulua batean, herriaren pentsamenduaren hotsaren isla den honako pasartean: "herriak [intelektualaren definizioari] zera eranstean dio zorrozki: eta pixka bat hodeietan bizi dena".

Gizartearekin konprometitua, alegia, sistematik at baina lagun batzuekin, Azurmendiren aburuz. Azken puntu hau, lagunena, hautamenezkoa dela oso dio Azurmendik, hots, intelektualak berak, gizartean dauden ikuspuntu desberdinetako jendeek osatzen duten zenbait talderen lagun izatea aukeratu behar duela. Euskal kasuan, multzo hauek zeharka bitan zatitzen ditu: abertzaleak eta ez-abertzaleak. Ugalderen ustez, intelektual euskaldunak zenbait *bereizgarri* ditu: bi hain zuzen, hizkuntza eta naziotasunaren sentimendua besteak beste. Beraz, Azurmendiren sailkapen eta Ugalderen sailkapenak batuko bagenitu cocktail berdin samarra aterako genuke. Gaur egun, Euskal Herrian intelektual mota bi izango genituzke nik ateratako konklusioan betiere.

Intelektualak berriz, Azurmendik esaten duen legez, egunkarietan justifikazioak egiteko erabili izan ohi dira, ideologia desberdinen posturak defendatzeko esan

ahalko genuke, eta hau da izan ere, Azurmendik gaitzesten duena, intelektualen rola hau ez dela pentsatzen duelarik.

III. Ondorioak

Garaiotan oso ugari diren kontzeptu eta ideia okerreire aurre egitekotan hasi nintzen lan hau garatzen. Herri honetako bereizgarri den biolentziaren inguruko tesi konkretu eta mardul bat jaso nahi nuen, horretarako Joxe Azurmendi filosofo zegamarra hautatu nuen, bere Demokratak eta biolentoak liburua abiapuntutzat hartuko nuelarik.

Hasiera batean Azurmendiren ikuspegi konkretua lortzea nire xede izan arren, azkenean eta batez ere nire lana berari egindako elkarrizketan oinarritua delako, biolentziaren nire ustezko ikuspegi "errealago" bat lortu dut. Gainera, hasiera batean biolentzia zen garatu nahi nuen gai bakarra eta azkenean, Euskal Herriko kasua sorpuntutzat hartuz, Estatuaren kontra erabiltzen den biolentziaren manifestazioa, Estatuak berak erabiltzen duen biolentzia, egungo demokraziaren biolentziarekiko ikuspegia eta eskubide elementaltzat har daitezkeen "autodeterminazio eskubidea" bezalako gaiak izan ditut jorratuak.

Filosofia modernoak errealitateari buruzko gogoetari aurre egin behar izan dio, batez ere Auschwitzeko sarraskiaren ondoren. Filosofia, funtsean, bizitzea da, Heidegger eta gero. Zentzu berean, nik neuk ere, hiritar moduan bizi hausnarpener honen beharra sentitu nuen. Horregatik, ikuspuntu pertsonaletik asko ase nauen lana burutu dut, itaunka nituen zenbait kontzeptu argitzeko balio izan didan bitartean.

IV. Bibliografia

Azurmendi, J. (1997): *Demokratak eta biolentoak*, Elkar, Donostia.

Chomsky, N. – Dieterich, H. (1998): *Hablemos de terrorismo*, Txalaparta, Tafalla.

Iztueta, P. (2000): *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

Navarro, J. (2001): *Fulgor de libertad, el estado contra Euskal Herria*, Miatzen.

Ormazabal, S. (2003): *Un mapa (inacabado) del sufrimiento*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao.

Ugalde, M. (2003): *Idazlan politikoak = Periodismo político*, J. M. Torrealdai arg., [Donostia].